

ZERGA ITUNDUAK DIRELA-ETA BILDUTAKOA BIZKAIAN

2021EKO UZTAILA

I. ZENBATEKO OROKORRAK

a) Zerga-bilketa likidoa guztira

Uztailera arte, zerga itunduen bidezko diru-bilketa metatua % 20,5 igo da aurreko urteko epe berarekin alderatuta, 4.947,6 milioi eurora iritsi baita. 2020ko hil berean 4.085,2 milioi bildu ziren. Horrenbestez, diru-bilketa likidoan 862,4 milioiko eta % 67,4ko alde positiboa dago ekitaldirako aurreikusitako guztizko zenbatekoarekin, 7.341,6 milioi euro.

Emaitzak aztertzean, kontuan hartu behar da ekitaldi bietan ziurtatutako diru-bilketan agertzen diren zifrak ez direla homogeenak; izan ere, aurreko ekitaldian zein oraingoan pandemiak finantza egoeran eta zergadunengan sortutako eragin kaltegarriak arintzeko hartutako neurriek zerga sarreraren egutegiari zein bildutako zenbatekoei eragiten diete, noski.

Barne-doikuntzei dagokienez, Bizkaiak beste lurraldeei egindako ordainketak 225,0 milioi euro egin du gora, hau da, % 39,8 igo da. Izan ere, doitu egin dira maiatzean BEZagatik sartutako 400 milioi euroak, 2019ko ekitaldiko akta bakarrei buruz gainerako zerga-administrazioekin egindako akordioei dagozkienak. Bestalde, Estatutik jasotako doikuntzak % 30,7 igo dira.

UZTAILAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2021	2020	diferen.	%
Diru-bilketa likidoa	5.417.651,8	4.405.491,3	1.012.160,5	23,0
FFAAen barneko doikuntza guztira	-790.239,2	-565.270,9	-224.968,4	39,8
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	4.627.412,5	3.840.220,4	787.192,1	20,5
Guztizko doikuntza Estatuarekin	320.217,5	245.019,5	75.197,9	30,7
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	4.947.630,0	4.085.239,9	862.390,1	21,1
Gauzatze-ehunekoak	%67,4	%50,2		



b) Zerga-bilketa gordina eta itzulketak kudeaketa propioa dela eta

Kudeaketa propioko zerga itunduen bidezko diru-bilketa gordina 6.395,3 milioi euro izan da, urtebete lehenago lortutakoa baino % 20,3 gehiago, izan ere, orduan 5.317,1 milioi bildu ziren. Bestalde, itzulketak % 19,7 igo dira, iazko 1.476,9 milioietatik oraingo 1.767,9 milioietara igo da. Bi egoera horiek batuta, kudeaketa propioaren bidez bildutako zenbateko likidoa % 20,5 igo da.

UZTAILAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2021	2020	diferen.	%
Diru-bilketa gordina	6.395.306,0	5.317.108,3	1.078.197,7	20,3
Itzulitakoak	-1.767.893,5	-1.476.887,9	-291.005,5	19,7
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	4.627.412,5	3.840.220,4	787.192,1	20,5

II. KONTZEPTU NAGUSIEN BILAKAERA

Zuzeneko zergen bilketa likidoa % 19,8 igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2.556,2 milioi euro; diru-bilketa gordina % 18,6 hazi da, eta itzulketak, berriz, % 12,4. Zeharkako zergetan 2.035,8 milioi euro bildu dira, hots, % 20,9 igo da. Horrenbestez, zerga-bilketa gordina % 21,5 hazi da, eta itzulketak, % 22,3. Tasak eta beste sarrera batzuk % 53,0 igo dira; 35,4 milioi euro izan dira guztira, eta aurreko ekitaldian, 23,2 milioi euro izan ziren.

UZTAILAREN TRIBUTU ITUNDUEN DIRU-BILKETA									
mila eurotan	Diru-bilketa gordina			Itzulitakoak			Diru-bilketa likidoa		
	2021	2020	diferen.	2021	2020	%	2021	2020	%
Zuzeneko zergak	2.998.748,5	2.527.567,5	18,6	442.546,9	393.805,3	12,4	2.556.201,6	2.133.762,2	19,8
PFEZa	2.350.237,3	1.960.063,7	19,9	423.366,1	373.620,2	13,3	1.926.871,2	1.586.443,5	21,5
Sozietateen gaineko zerga	466.629,7	488.496,3	-4,5	10.312,6	6.524,0	58,1	456.317,1	481.972,3	-5,3
Gainerako zuzeneko zergak	181.881,5	79.007,5	130,2	8.868,2	13.661,1	-35,1	173.013,3	65.346,3	164,8
Zeharkako zergak	3.359.396,9	2.765.418,8	21,5	1.323.609,1	1.082.110,6	22,3	2.035.787,7	1.683.308,2	20,9
BEZa	2.408.919,1	1.915.201,5	25,8	530.289,4	514.613,6	3,0	1.878.629,7	1.400.587,9	34,1
BEZa barneko doikuntza				490.351,4	312.862,7	56,7	-490.351,4	-312.862,7	-56,7
Zerga bereziak	842.801,9	769.855,8	9,5	302.183,6	254.051,2	18,9	540.618,3	515.804,6	4,8
Gainerako zeharkako zergak	107.675,8	80.361,5	34,0	784,8	583,1	34,6	106.891,1	79.778,3	34,0
Tasak eta Bestelako Sarrerak	37.160,6	24.122,1	54,1	1.737,4	972,0	78,7	35.423,2	23.150,1	53,0
BEREZKO KUDEAKETA GUZTIRA	6.395.306,0	5.317.108,3	20,3	1.767.893,5	1.476.887,9	19,7	4.627.412,5	3.840.220,4	20,5
Doikuntzak Estatuarekin	517.661,9	447.964,0	15,6	197.444,5	202.944,5	-2,7	320.217,5	245.019,5	30,7
Doikuntzak BEZa	472.967,5	407.483,6	16,1	11.109,6	15.474,6	-28,2	461.857,9	392.008,9	17,8
Doikuntzak Zerga bereziak	44.694,5	40.480,5	10,4	186.334,9	187.469,9	-0,6	-141.640,4	-146.989,4	3,6
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	6.912.967,9	5.765.072,4	19,9	1.965.337,9	1.679.832,5	17,0	4.947.630,0	4.085.239,9	21,1



a) PFEZ

PFEZaren diru-bilketa likidoa % 21,5 hazi da aurreko urteko uztailearekin alderatuta, bilketa gordina % 19,9 hazi delako eta itzulketak ere % 13,3 hazi direlako (373,6 milioitik 423,4 milioira).

Osagaiek bilakaera desberdina dute. Lanbide-, enpresa- edo arte-jardueren ordainketa zatikatuak % 25,6 igo dira; lan-etekinen gaineko atxikipenak % 5,5; kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenak % 34,9; ondare-irabazien gaineko atxikipenak % 22,2; kapital higiezinaren etekinen gaineko atxikipenak % 7,8; eta sarien gaineko karga berezia 6,8 milioira igo baita, bilketa aurreko ekitaldiko 2,5 milioiekin alderatuz. Kuota diferentzialaren emaitza negatiboa murriztu da (-143,3 milioi aurreko urteko -347,8 milioiekin alderatuta). Izan ere pasaden urtean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitortzeko kanpaina irailaren 30ean amaitu zen, hau da, ohiko iraupenetik 3 hilabete luzatu zen. Beraz, diru-sarrerak data horretara atzeratu ziren (eta bigarren epea azaroaren 30era atzeratu zen, diru-sarrera zatikatuz gero).

b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen kuota diferentzialak % 12,2 egin du behera (zerga-bilketa gordina % 11,2 jaitsi da, hau da, 353,3 milioi dira, aurreko urtean izandako 397,9 milioiekin alderatuta. Itzulketen bolumena, 9,5 milioi, ordea, % 50,3 hazi da). Aurreko epigrafean aipatu diren gainerako zergak kontuan hartuta, zergaren bilketa % 5,3 jaitsi da, eta 2020ko uztailean arte lortutako 482,0 milioi izatetik ekitaldi honetan 456,3 milioi izatera igaro da.

c) Zuzeneko zergapetzearen gainerako zergak

Zuzeneko gainerako zergen bidezko diru-bilketa likidoak % 164,8 egin du gora. Izan ere, aurreko urteko uztaileko 65,3 milioietatik aurtengo 173,0 milioietara igo da. Horrela, gora egin dute oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga (% 91,4), ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (% 39,5) eta, batez ere, ondarearen gaineko zerga (1,8 milioitik 79,7 milioira), borondatezko aurkezpen-aldiaren amaiera-data desberdina delako (2021eko ekainaren 30a eta 2020ko irailaren 30a). Beste alde batetik, Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga % 16,8 jaitsi da, behin Arabako eta Gipuzkoako Aldundien aldeko doikuntza eginda, 1,6 milioikoa, aurreko urtekoa baino % 63,6 txikiagoa.

d) BEZa

BEZaren diru-bilketa % 34,1 igo da, 1.400,6 milioi eurotik ekitaldi honetan bildutako 1.878,6 milioi eurora. Bilakaera positiboa bilketa gordinaren % 25,8ko irabaziari dagokio, 1.915,2 milioi eurotik 2.408,9 milioi eurora igaro baita (funtsean, akta bakarrekiko diru-sarrerak direla eta), itzulketen igoera txikiarekin alderatuta (% 3,0). Zerga honetan egindako barne doikuntzaren ondorioz, % 56,7 ordainketa gehiago egin dira, hau da, 490,4 milioi euro. Arabak jaso du doikuntza hori, hau da, 135,4 milioi euro (% 23,4), baita Gipuzkoak ere, 355,0 milioi euro (% 74,7).



e) Zerga bereziak

Zerga berezien bilketa % 4,8 hazi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta; igoera izan dute diru-bilketa gordinean (% 9,5) eta itzulketetan (% 18,9). Gora egin dute hidrokarburoek (% 9,2), alkoholek (% 29,6), garagardoak (% 16,1) eta elektrizitateak (% 3,2), eta behera egin dute bitarteko produktuek (% 16,9) eta tabako-laboreek (% 15,0). Zerga horien barne doikuntzek eragin handia izan dute emaitza horietan. Kontzeptu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak 298,3 milioi euro ordaindu dizkie Arabakoei eta Gipuzkoakoei (% 20,3 igo da); hurrenez hurren, lehenengoak 73,8 milioi jaso ditu (% 24,9 gehiago) eta bigarrenak, 224,5 milioi (% 18,9 gehiago).

f) Zeharkako zergapetzearen gainerako zergak

Zeharkako gainerako zergak, batera, % 34,0 igo dira. Zehazki, honako zerga hauen diru-bilketa igo da: ondare-eskualdaketen gaineko zerga (% 36,2), egintza juridiko dokumentatuak (% 18,9) zenbait garraio bideren gaineko zerga (% 72,0), berotegi-gas fluordunen gaineko zergak (% 24,6), aseguru primen gaineko zergak (% 32,9) eta joko-jardueren gaineko zerga (% 8,1).

g) Tasak eta beste sarrera batzuk

Tasak eta beste sarrera batzuen diru-bilketa % 53,0 igo da; 23,2 milioi eurotik ekitaldi honetan bildutako 35,4 milioi eurora igo da. Joko tasa % 97,6 igo da, makina eta aparatu automatikoen tasa % 245,4 hazi baita (aurreko ekitaldiko ostalaritza sektorearen itxierak eraginda, 2,4 milioitik 8,1 milioira igo da). eta neurri txikiagoan, txartelengatiko eta bestelako apustuengatiko tasa ere igo da (% 9,5), bingo-jokoarenak, berriz, jaitsi egin dira (-% 44,5). III. kapituluko gainerako kontzeptuetan, berandutze-interesak (% 11,5), premiamendu-errekarguak (% 94,7) eta zerga-zehapenak (% 39,7) igo dira.

h) Estatuarekiko doikuntzak

Estatuarekiko doikuntzak, ekitaldiko lehen hiruhilekoko BEZaren diru-bilketari eta aurreko ekitaldiko likidazioari dagozkienak, % 17,8 igo dira duela urtebeteko uztailarekin alderatuta; inportazioei dagozkienak ere igo dira (% 22,4) baita barneko eragiketenak ere (% 8,8).

Zerga Berezien doikuntzen emaitza negatiboa % 3,6 murriztu da, batez ere Tabako Lanetatik kobratu beharreko zenbatekoa handiagoa delako (10,0 milioi 2021ean eta 0,1 milioi 2020an); aldiz, % 2,1 gehiago ordaindu da barneko eragiketarako hidrokarburoen kasuan.

